

**2015/09/29(e)ko saioa**

**HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.**

Eusko Jaurlaritzak Maria Carmen Agoues, Kepa Bilbao eta Jose Ramón Bengoetxea izendatu ditu Arbitraje Batzordeko kide izateko hautagai.

**EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA X. LEG.**

Eusko Jaurlaritzak nekazari ekoizleen elkarreentzako laguntzak iragarri ditu.

Merkataritzan ezagutza, berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko eta zabaltzeko laguntza berriak.

SPRiko kargugabetze eta izendapenak.

**ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA X. LEG.**

Eusko Jaurlaritzak 4,5 milioi bideratuko ditu seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak erregulatuko dituen dekretu berrira.

**OGASUN ETA FINANTZA SAILA X. LEG.**

Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte Sozietate Anonimo Publikoaren Administrazio Kontseiluko eteteak eta izendapenak.

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.**

290.000 euro agiritegi publikoetarako.

170.000 euro Agiritegi ez publikoentzat.

420.000 euro bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak burutzeko.

760.000 euro gailu digitalak erosteko diru-laguntzatan.

Musikene Fundazioaren estatutuen aldaketa.

**SEGURTASUN SAILA X. LEG.**

Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar-ekimenen bulegoa #EKINBIDE# sortzeko eta horren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretua onartu

dute.

### **INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA X. LEG.**

Eusko Jaurlaritzak onartu du Artziniega parean lurzoruak okupatzea A-2602 eta A-4624 errepideetarako.

Eusko Jaurlaritzak oniritzia eman dio Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoari Nerbioi-Ollargan-Beteluri hoditeriaren euste-proiektuaren eraginpeko ondasunak okupatu ditzan.

## **HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.**

**Eusko Jaurlaritzak Maria Carmen Agoues, Kepa Bilbao eta Jose Ramón Bengoetxea izendatu ditu Arbitraje Batzordeko kide izateko hautagai.**

Erabakia, Eusko Jaurlaritzak Arbitraje Batzordean izango dituen ordezkaria izendatzeko dena.

### **LABURPENA**

**Proposamena jakinarazi diote Eusko Legebiltzarrari eta aste honetan argitaratuko dute Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.**

**Argitaratu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentek 15 egun izango ditu organo eskuduna biltzeko hautagaizten egokitasuna ebazteko, kargua hartu baino lehen.**

**Arbitraje Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko eta Lurralde Historikoetako erakundeen artean sortzen diren eskumen-gatazkak ebazten dituen organoa da.**

Gobernu Kontseiluak Maria Carmen Agoues, Kepa Bilbao eta Jose Ramón Bengoetxea Arbitraje Batzordeko kide izateko hautagai izendatzeko erabakia hartu du gaur, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izan daitezten. Arbitraje Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Lurralde Historikoetako erakundeen artean sortzen diren eskumen-gatazkak ebaztea du eginkizun (Gernikako Estatutuaren 39. artikulua).

Arbitraje Batzordeak zazpi kide ditu:

alde batetik, presidentea, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea bera izaten den (gaur egun, Juan Luis Ibarra).

Bestetik, askatasunez izendatutako sei kide: Eusko Jaurlaritzak hiru hautatzen ditu, eta foru-aldundi bakoitzak bana.

Arbitraje Batzordeko kideen mandatuak sei urteko iraupena du. Arbitraje Batzordea arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legearen arabera, batzordeko presidentek, bere mandatua amaitu baino hiru hilabete lehenago, berritze-prozesua abiarazi behar du, dagokion erakundera joz. Hori horrela, Juan Luis Ibarra uztailaren 20an abiarazi zuen izapidea.

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi dio hautagaien proposamena Eusko Legebiltzarrari, eta aste honetan emango da argitara EHAA. Proposamena argitaratu ondoren, egungo presidentek 15 eguneko epea izango du hautagaiztak aztertuko dituen eta haien egokitasuna ebazteko duen organoa deitzeko, hautgaiek kargua hartu baino lehen.

Arbitraje Batzordearen egoitza Legebiltzarrean dago. Batzordekideek Zuzenbideko titulua eduki behar dute, bai eta esperientzia egiaztatua ere arlo juridikoan, eta ez dute inolako ordainsaririk jasotzen euren funtzioak gauzatzearren truke. Kargu hori, bestalde, bateraezina da foru-erakunde edo erakunde autonomikoetan lan egitearekin, inpartzialtasun- eta independentzia-printzipioak betez jardun behar baitute.

## **EGINKIZUNAK**

Arbitraje Batzordeak hurrengo hauek ebazten ditu:

Eskumen-arazoak, lege- edo foru-arauen proiektu edo proposamenekin lotutako eskumenen titulartasuna autonomia-erkidegoarena edota foru-erakundearena den erabakitzekeo.

Eskumen-gatazkak, Eusko Jaurlaritzak edo foru-aldundiek ikusten dutenean xedapen, ebazpen edo egintza batek ez duela errespetatzen legez ezarritako eskumen-ordena.

*(\*) Gernikako Estatutuaren 39. artikulua: Autonomia Erkidegoko erakundeen eta lurralde historiko bakoitzeko artean sor litezkeen eskumen-gatazkak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren lehendakaritzapean Eusko Jaurlaritzak eta dagokion lurraldeko Foru Aldundiak askatasunez izendatutako kide berdinez osatutako bitartekaritza-batzorde batek ebatziko ditu, Eusko Legebiltzarraren lege batek finkatuta*

## **CURRICULUM VITAE**

**Kepa Bilbao Gaubeka**

### **PRESTAKUNTZA:**

Abokatu ekonomialaria. Deustuko Unibertsitatea.

Zenbait graduondoko eta espezializazio ikastaro.

Ikerketa-lanetan partaidetza, erakunde pribatu zein publikoentzat, hala nola Indarkeriari buruzko Adituen Batzordearen Txostena, Eusko Jaurlaritzarentzat.

Kolaborazioak argitalpenetan.

### **LAN ESPERIENTZIA:**

T. Asesores-eko bazkide zuzendaria, 1988tik.

Abokatua, jardunean.

Aholkularitza estrajudiziala eta esku-hartze judiziala honako arlo hauetan: zuzenbide zibila, merkataritza-zuzenbidea, zuzenbide administratiboa eta penala. 26 urte baino gehiagoko esperientzia, pertsona fisiko, juridiko-pribatu zein herri administrazioen abokatu-zuzendaritzan.

Deustuko Unibertsitateko irakaslea:

Zuzenbide Politikoa I eta Zuzenbide Politikoa II, Zuzenbide fakultatean, 5 ikasturtetan:

-Estatuaren Teoria.

-Konstituzio Zuzenbide Konparatua.

-Konstituzio-eredu espainolaren alde dogmatikoa eta organikoa.

Egitura Politiko-administratiboak, Zientzia Politiko eta Soziologia fakultatean:

-Botere politikoa.

-Politikaren juridifikazioaren mugak.

-Botere politikoaren deszentralizazio horizontalaren eta bertikalaren ereduak.

Zuzenbide Administratiboa, Zientzia Politiko eta Soziologia fakultateko Gizarte Laneko Eskolan:

-Zuzenbide Administratiboaren Parte Orokorra: prozedura administratiboa, zehapen-prozedura, herri-administrazioen ondare-erantzukizuna, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa.

#### **BESTELAKOAK:**

JAKIUNDE, Euskadiko Zientzia, Arte eta Letren Akademiako idazkari nagusia, 2008tik 2012ra.

AZTERLAN AURRERATUEN SUSTAPENERAKO IGNACIO MANUEL ALTUNA FUNDAZIOko lehendakariordea.

Beste fundazio-patronatuen kidea.

Kudeaketa arloko lanpostuak zenbait enpresatan.

#### **CURRICULUM VITAE**

**María Carmen Agoues Mendizabal**

#### **PRESTAKUNTZA:**

Zuzenbidean lizentziaduna (1987) eta Zuzenbide Administratiboan doktorea (1995).

#### **LAN ESPERIENTZIA:**

Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Goizueta eta Arano udalerrietako (Nafarroa) udal idazkaria, 1988. eta 1989. urteetan.

EHUko Abokatutza master ofizialeko irakaslea.

EHUko Europar Integrazioa master ofizialeko irakaslea.

Asmoz Fundazioaren Ingurumen Zuzenbidea master interaktiboko irakaslea.

EHUko Abokatutza master ofizialeko zuzendaritza-batzordeko kidea.

Herri Arduralaritzako Euskal Aldizkariaren idazkaria.

Ikerketa-ildoak: Hirigintza eta lurralde-antolamendua. Hezkuntzaren araubide juridikoa. Zehatzeko ahalmena. Lurpearen araubide juridikoa eta jabetza-eskubidea. Izaera administratiboko xedapen orokorren aurkako errekurtsu juridikoak.

## **BESTELAKOAK:**

Deialdi publikoetan finantzatutako I+G proiektuetan partaidetza, besteak beste:

- Sebastián de la normativa aplicable para la prevención y gestión de contaminación marina por hidrocarburos. Unesco katedra.
- Derechos constitucionales y desarrollo sostenible: fórmulas de integración entre el urbanismo y la ordenación del territorio, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.
- Intervención en el planeamiento territorial y urbanístico de la legislación sectorial: fórmulas de integración, Zientzia eta Teknologia Ministerioa.
- Los conflictos de leyes en el Derecho Civil Foral Vasco y la Evaluación del Derecho Privado Comunitario, EHU.

Zientzia-artikuluak eta -argitalpenak, besteak beste:

- 3 monografía: El régimen jurídico de la planificación territorial: conflictos competenciales y aspectos jurídico-materiales; El régimen jurídico de los centros docentes de educación no universitaria; La Responsabilidad del arquitecto municipal (Especial referencia a los informes urbanísticos).
- Artíkuulo ugari zientzia-aldizkarietan: Las singularidades en el tratamiento del suelo no urbanizable; La función social de los derechos, en especial del derecho de propiedad; La intervención administrativa en el transporte de viajeros por carretera; El Planeamiento urbanístico y la movilidad sostenible; La función social en la propiedad del subsuelo urbano; La función social de la vivienda frente a los intereses particulares.

I+G kudeaketan esperientzia:

- EHUko Udako Ikastaroen zuzendaria 2015etik.
- Donostiako Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide graduako irakasle taldeen koordinatzailea.

Seiurtekoak:

- Zientzia eta Hezkuntza Ministerioak aitortutako ikerketako hiru seiurteko.

## **CURRICULUM VITAE**

**José Ramón Bengoetxea Caballero**

### **PRESTAKUNTZA:**

Zuzenbidean lizentziatua, EHUn, 1986an.

Zuzenbidean doktorea (PH. D.), Edinburgheko Unibertsitatean

Katedratiko gisa akreditatua, 2014an

## **LAN ESPERIENTZIA:**

ehuGUNEren koordinatzailea; "<http://www.ehugune.es>" [www.ehu.es/ehugune](http://www.ehu.es/ehugune).

International Master in Sociology of Law unibertsitate arteko master ofizialaren koordinatzaile-arduraduna (EHU eta Universit degli Studi di Milano). 2006-2007tik master ofizial gisa ematen da, Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutuan.

EHUren Sociology of Law doktoregoaren (Soziologia Juridikoa) koordinatzaile-arduraduna eta Doktoregoaren Batzorde Akademikoko presidentea, Globalizazioa aztergai doktorego-programako kidea.

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluko (Eurobask) idazkari nagusia.

Zuzenbide-teoria, soziologia eta zuzenbide-filosofiako irakaslea: 1990etik EHUko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide, Moral eta Politikaren Filosofiako irakaslea (1993tik, irakasle titularra).

Bordeleko Montesquieu-Bordeaux Unibertsitateko irakaslea, Espainiako Konstituzio Zuzenbideari buruzko ikastaroa, 2012tik Zuzenbideko Graduan.

Comparing Legal Cultures-eko irakaslea (kultura juridikoak), International Master in Sociology of Law-n. Aipatutako masterreko irakaslea, 2005etik: Thesis Seminar (2005-2007) eta Judges and Decision-Making, an intercultural comparison (2006-2008) ikastaroak. (2005-2010 eta 2011tik).

Europar Zuzenbide eta Integrazioko master hauetako irakaslea: EBko askatasun oinarrikoak eta politikoak eta Kohesio-politika, Europar Batasuneko bat-egite juridikoari eta ekonomikoari buruzko master ofizialean, EHU (Asmoz Fundazioa).

Euskal nazionalismoaren aukerak europar esparruan ikasgaiko irakaslea EHUren XXI. mendeko nazionalismoari buruzko Nazionalismoa XXI. Mendean izeneko master ofizialean, 1 ECTSko irakaslea: Euskal nazionalismoaren aukerak Europako markoan - Las oportunidades del nacionalismo vasco en el marco europeo.

.

## **BESTELAKOAK:**

Martxan dauden ikerketa-taldeak eta ikerketa-proiektuak

- P-Hiru Bis Publikoa, Pribatua eta Jendartekoa: Lankidetzak eta Gobernantza Erak Euskal Herrian eta Europan proiektu estrategikoa.

- Eusko Jaurlaritzak finantzaturako Oinarriko Eskubideak eta Europar Batasuna Ikerketa Taldeko (IT) kidea, Gurutz Jáureguiren zuzendaritzapean.

- Helsinkiko Unibertsitateko Centre of Excellence The Foundations of the European Polity-ko kanpoko kolaboratzailea, Kaarlo Tuori zuzendari izanik, 2007tik 2013ra arte. Europes Moral Economy: Debt - Past and Present (Norface: 2014-2017) European Bonds The Moral Economy of Debt proiektuarekin berriz aktibatu zen.

- Effectiveness and Application of EU and EEA law in National Courts ikerketa-taldeko ikertzailea.

Christian Franklinek zuzentzen du, Bergen-en (Norvegia).

Honako aldizkari edo argitalpen hauen erredakzio-kontseiluko kidea:

-Dykinson Elkartearen Zuzenbidea eta Gizartea sailaren editore-koordinatzaile nagusia, Carlos Listarekin batera, IISJrekin elkarlanean.

-Eleriako Erredakzio Kontseiluko kidea.

- Oñati Socio-legal Series-eko (online) Erredakzio Kontseiluko kidea.

- Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkariaren Erredakzio Kontseiluko kidea.

- Brasilgo Soziologia Juridikoko Elkartearen Aldizkariko Erredakzio Kontseiluko kidea.

- Iuris Vasconiae Aldizkariko Batzorde Zientifikoko kidea.

- Helsinkiko Unibertsitateko No Foundations Aldizkariko International Advisory Board-eko kidea.

-Sortuzeko Batzorde Akademikoko kidea.

-Ceinik-eko (EHUko Nazioarteko Ikasketen Katedra) nazioarteko ikasketa bildumaren Batzorde Akademikoko kidea.

Agentzia independenteen ebaluazioak.

- 3 seiurteko ikertzen, Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalak egiaztatuta: 3; hirugarren seiurtekoa aitortua: 2002-2007.

- 5 bosturteko irakasle gisa, EHUK aitortuak: 5. bosturteko aitortua: 2014-01-01

- 8 hirurteko.

- Uniqua: Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia. Bikaintasun aitortua (A-1) Lortutako puntuak: 100,00. Aitortutako azken tartea: 2005/01/01.

- ANECA - Unibertsitateko katedratikoen kidegorako akreditatua, Zientzia Sozial eta Juridikoetako Unibertsitate Katedradunak Akreditatzeko Batzordeak, 2014ko otsailaren 19an.

## **EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA X. LEG.**

**Eusko Jaurlaritzak nekazari ekoizleen elkarteentzako laguntzak iragarri ditu.**

### **LABURPENA**



## **Landa Garapenerako 2015-2020 Programan jasotako laguntzetarako deia egin da lehenengo aldiz, aurtan sortu diren nekazari elkarteentzat.**

Kontseiluaren azken bileran, Eusko Jaurlaritzak onartu du ekitaldi honetan nekazari ekoizleen elkarteei eta elkarte horien batasunei laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantxa Tapiak emandako Agindua.

Agindu horretan bi laguntza mota aurreikusten dira. Alde batetik, 2015a baino lehen aitortu diren elkarteentzat erkidegoaren araudiak aurreikusten dituenak, laguntza horiek eskuratu ahal izateko epea agortu ez bazaie. Bestetik, Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programa berrian (LGP) aurreikusitako laguntzak iragarri dira lehen aldiz, ekitaldi honetan aitortzen diren elkarteentzat.

Lehenengo kasuan, 2014-15 merkaturatze kanpainian egindako funtzionamendu gastuak lagundu ahal izango dira diruz. Soldatak, aseguruak, garraioak, dietak eta materiala dira gastu horietako batzuk. Laguntza horien finantzaketarako, 2015ean 200.000 euro erabiliko dira guztira.

Ekoizleen elkarteak eta erakundeak sortzeko Landa Garapenerako 2015-2020 programak aurreikusitako laguntzei dagokienez, laguntza horiek ezingo dira izan negozio planean aurreikusitako urteko fakturazioaren %9 baino gehiago, eta elkarte bakoitzak gehienez 100.000 euro eskuratu ahal izango ditu.

## **Merkataritzan ezagutza, berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko eta zabaltzeko laguntza berriak.**

### **LABURPENA**

Eusko Jaurlaritzak prestakuntza-mapa berri bat ezarri du Euskadiko merkataritzarentzat, herriaren oreka ekonomiko eta sozialerako gako den alor horretan eskaintzen den prestakuntzaren kalitatea eta eragina hobetzeko. Izan ere, alor horretakoak dira euskal biztanleria okupatuaren %18,9a.

Gaur 174.000 euroko partida onartu da diru-laguntza plan hau hasteko; beraz, udazken honetatik aurrera, merkataritza arloko profesionalei eskainitako ikastaro guztiek bete beharko dituzte azken hilabeteotako diagnostikoaren ondoren ezarritako egokitasun-baldintzak.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila eta Lanbide elkarlanean aritu dira prestakuntza-mapa berri hori lantzen. Diagnostikoan, aintzat hartu dira Euskadiko merkataritzako berrogeita hamar elkarte eta erakunde erakusgarriren ekarpenak.

Prestakuntza etorkizunari aurre egiteko giltza estrategikoetako bat da, konplexutasuna eta garapen azkar eta etengabea ezaugarri nagusi dituen testuinguru honetan. Informazio esanguratsua jaso da, adierazgarritasuna, sektorearen ezagutza eta talde interesdunak kontuan hartuta; merkataritza dinamizatzeke bulegoekin lan egin da; eta horiekin batera, merkataritza-elkarteekin, kontsumitzaileekin, merkataritza-federazioekin, merkataritza-ganbarekin eta prestakuntza arautuko erakunde publiko zein pribatuekin.

Laguntza berri hauek merkatuaren eskakizunetara egokitzen du profesionalen kualifikazioa eta emaitzak lortzera bideratzen ditu ikastaroak. Urteak daramatzate kalitatezko prestakuntza ematen. Hala ere, harago joan nahi dugu, merkataritzako profesionalen premiei hobeto erantzun, informazioa egokitu eta ingurunearen aldaketak aurreikusi nahi dira xede hauek lortzeko:

- Merkatu berriak irekitzea
- Produktu/zerbitzu berriak egitea
- Aldaketa teknologikoak / sozialak. Hurbileko ingurua erabat aldatu da urte gutxitan.

Euskal Merkataritzaren 2013-2016 Plan Estrategikoan, giza-kapitalean gehiago inbertitzeko beharra zehazten zen, eta, horretarako, lanbide-heziketa eta merkataria sektorearen premietara egokitzeko duten gaitasuna hobetzea. Premia horri erantzuna da emateko prestatu da mapa.

### **SPRIko kargugabetze eta izendapenak.**

Erabakia, Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiari Administrazio Kontseiluko kideen kargu-uztea eta izendapena proposatzeko dena.

### **LABURPENA**

Gobernu-kontseiluak akordio hauek lortzeko proposamena luzatu dio Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.ri:

Batetik, Administrazio Kontseiluko kide hauen kargugabetzea prestatzea:

José Zurita Laguna jauna.

Peli Uriguen Ansola jauna.

Victor Ibarreche Asua jauna.

Bestetik, Administrazio Kontseiluan Euskadiko Administrazio Orokorrak harpidetutako kapitalaren ordezkari gisa arituko diren kide hauen izendapena prestatzea, estatutuan aurreikusitako epean jardun dezaten:

Pilar García de Salazar Olano andrea.

María Ainhoa Aizpuru Murua andrea.

Marco Pineda Gómez jauna.

## **ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA X. LEG.**

**Eusko Jaurlaritzak 4,5 milioi bideratuko ditu seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak erregulatuko dituen dekretu berrira.**

### **LABURPENA**

**Zenbateko hori 255/2006 Dekretura bideratutako aurrekontu-sailetik kendu da, apirilaren 1ean indarrean jarritako 30/2015 Dekretu berriaren eskaerei erantzuteko**

**Guztira, seme-alabak dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzen aurtengo aurrekontua 27.193.900 eurokoa da**

Angel Toña Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eskatuta, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen 2015eko aurrekontu-zuzkiduraren eguneraketa onartu du gobernu-kontseiluak. Erabaki horri esker, epeak eta baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak erantzungo dira.

Joan den martxoaren 17an, gobernu-kontseiluak seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen dekretu berria onartu zuen. Erregelamendu berriak funtzio bera betetzen zuen 255/2006 Dekretua ordeztu du. Ondorioz, Dekretu berria jarri ondoren, hau da, aurtengo apirilaren 1etik aurrera, testu horrek erantzuten die eskabideei.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bi dekretuek biltzen dituzten eskabideei erantzuteko, aurrekontuan sartutako baliabideak (27.193.900 euro) banatzeko aurrekontu-eguneraketa onartzea erabaki du. Dekretu berriak barne hartzen dituen eskabideak apiriletik aurrerakoak direnez, lehengoaren dotazioa handiagoa da.

Seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak prestazio ekonomiko ez periodikoak dira, eta familia-unitateko aitari edo amari zuzenduta daude, beren kargura dituzten seme-alaben mantenuarekin eta zaintzarekin lotutako behar ekonomikoak betetzen laguntzeko. Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen 8. artikuluari jarraiki, eskubide subjektibozkoak dira.

## **OGASUN ETA FINANTZA SAILA X. LEG.**

**Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte Sozietate Anonimo Publikoaren Administrazio Kontseiluko eteteak eta izendapenak.**

Erabakia, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak, SAREN Administrazio Kontseiluko kideak kargutik kendu eta beste kide batzuk izendatzeko.

#### **LABURPENA**

Gobernu-kontseiluak, Ogasun eta Finantzetako sailburuak hala proposatuta, Iñaki Aldekoagari Labaka Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE S.A.) Administrazio Kontseiluko kide gisa etetea onartu du gaur, bai eta M Teresa Amezqueta Alegria izendatzea EJIE S.A.ko Administrazio Kontseiluko kide gisa ere.

## **HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.**

**290.000 euro agiritegi publikoetarako.**

#### **LABURPENA**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, agiritegi sistema propioa martxan jarri edo sendotzeko diru-laguntzak arautzen dituen Agindua onartu du. Diru-laguntzok, Euskadiko toki erakundeentzat dira.

Aginduak, diru-laguntzatan 290.000 euro emateko araubidea ezartzen du, 2015 urtean agiritegi sistema propioa ezartzeko edo sendotzeko programak gauzatzeko, edo agiritegi sistema propioa ezartzeko proiektuak garatzeko. Programa edo proiektu horiek toki erakundeek garatu beharko dituzte - udalerriak nahiz udalerriz azpiko toki erakundeek - edo udalerriz gaindiko toki erakundeek.

**170.000 euro Agiritegi ez publikoentzat.**

#### **LABURPENA**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Agiritegi ez publikoen antolaketa, zabalkunde eta digitalizatorako diru-laguntzak arautzen dituen Agindua onartu du.

Aginduak, diru-laguntzatan 170.000 euro emateko araubidea ezartzen du, ondorengo programak garatzeko: artxibo-agiri, artxibo-funts nahiz agiri-bilduma ez publikoen programak, beti ere euskal Agiri Ondarea osatzen badute. Programak, gainera, helburutzat izan beharko du artxibo-funtsak antolatzea eta agiritegien tratamendua hobetzea, aurrez datu base batean jasotako artxibo-funtsak digitalizatzea,

informazioa zabaltzea eta BADATOR informazio sisteman integratzea.

**420.000 euro bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak burutzeko.**

### **LABURPENA**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak burutzeko diru-laguntzatarako deialdia egiten duen Agindua. Deialdi honek 420.000 euroko diru-kopurua du.

Deialdiak, diruz-lagundu ahal izango diren bizialdi osoko ikaskuntzako hiru motatako jarduerak zehazten ditu:

-Prestakuntza-jarduera espezifikoak, pertsona-talde jakin baten prestakuntza-beharrei erantzuteko diseinatu eta planifikatutakoak.

-Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak.

-Prestakuntzako edo hezkuntzako metodologia berrien esperimentazioari buruzko proiektuak; ezagutzaren belaunaldi arteko transferentziari buruzkoak, prestakuntza hurbiltzeko eta ikastea sustatzeko trabak baztertzeari buruzkoak, edota bizialdi osoko ikaskuntzarekin lotutako beste edozein.

Onartuak gertatzen diren proiektuek, eta ondorioz deialdi honen bidezko finantziazioa eskuratzen dutenek, 2015ean zehar hasi beharko dute, eta datorren urteko ekainaren amaiera bitartean garatu ahal izango dira. Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke: udalak, tokiko edo eskualdeko garapen agentziak, euren helburu sozialen artean formazioa duten udal-elkargoak, Euskadin egoitza duten unibertsitateak, bizialdi osoko ikaskuntzaren arloan jarduerak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak, Lanbide Heziketako irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatuak, eta euren helburuen artean formazioa duten merkataritza-elkarteak edo ekonomia sozialeko elkarteak.

**760.000 euro gailu digitalak erosteko diru-laguntzatan.**

### **LABURPENA**

**Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza lerro berria ireki du, ikasgeletan bitarteko digitalen bidezko ikaskuntza eta irakaskuntzari bultzada emateko helburuz**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2015-2016ko ikasturtean gailu digitalak erosteko diru-laguntzak deitzen dituen agindua. Gailu horiek Euskadiko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten ari diren ikasleek erabiliko dituzte ikasgeletan. Deialdi honel 760.000 euroko zenbatekoa du.

Deialdi hoentan parte hartu ahal izango dute, 2015-2016 ikasturte honetan SARE\_HEZKUNTZA GELAN sarean dauden ikastetxe publiko edo itunpekoetako Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek; ikasle horiek beka baten onuradun izan beharko dute, ikas-materialaren osagaian, 2014/2015eko ikasturteko beka-deialdian.

Gainera, diru-laguntza eskatu duten dispositibo digitalak bat etorri beharko du ikastetxeak eskatzailearen talde guztiarentzat aukeratu duenarekin, beti ere Aginduan zehazten dituen ezaugarri teknikoak betez. Gailuak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera eskuratua beharko du izan. Ikasle bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 200 eurokoa izango da gailua erosteko.

## **Musikene Fundazioaren estatutuen aldaketa.**

Erabakia, MUSIKENE Euskal Autonomia Erkidegoko Goi Mailako Musika Fundazio pribatuaren estatutuak aldatzeko baimena ematen duena.

### **LABURPENA**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Musikene - Euskadiko Goi Mailako Musika Ikastegiaren Fundazioaren estatutuetan aldaketa egitea onartu du.

Aldaketak estatutuen laugarren kapituluari eragiten dio, fundazioaren organoak zehazten diren kapituluari. Honela, pertsona bakarreko bi organo sortu dira: Zuzendari Nagusi Akademikoa batetik, eta Zuzendari Kudeatzailea, bestetik. Aldaketa honen ondoren, Koordinatzaile Nagusiaren figura desagertu da, eta haren funtzioak Zuzendari Kudeatzaileak hartuko ditu. Estatutuen erredakzio berriak, era berean, Zuzendari Nagusi Akademikoaren zereginak ere jasotzen ditu.

Aldaketa hau, Musikeneren 2014-2018 Plan Estrategikoan azaltzen den kudeaketa eraginkor baten aldeko irizpideari erantzunez egin da. Fundazioaren Patronatuak 2014ko ekainean onartutako Plan Estrategiko horri jarraiki, Patronatuak 2015eko otsailean aho batez onartu zuen estatutuetan aldaketa egitea.

## **SEGURTASUN SAILA X. LEG.**

**Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar-ekimenen bulegoa #EKINBIDE# sortzeko eta**

## **horren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretua onartu dute.**

EKINBIDE-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar-ekimenen Bulegoarena.

### **LABURPENA**

Administrazioak bermatu beharreko eskubidea da herritarrek, eragiten dieten gai publikoetan, parte hartzeko eta hitz egiteko bideak eta tresnak edukitzea. Herritarren eskubide unibertsala eta Administrazioaren betebeharrak orokorra den hori haien segurtasunari buruzko gaiei ere aplikagarri zaizkie.

Horregatik, hain zuzen, EKINBIDE Euskadiko segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar-ekimenen bulegoa sortzeko, eta haren osaera eta funtzionamendua arautzeko, dekretua onartu du gaur Gobernu Kontseiluak.

Dekretu horren bidez, Ertzaintzaren polizia-zerbitzuak hobetzeko ekimenen bulegoak barne hartzen zuena Euskadiko segurtasun publikoaren sistemaren antolamendu osora zabaltzen du Segurtasun Sailak.

Segurtasun Sailaren mendeko polizia-zerbitzua da EKINBIDE, eta herritarrei iradokizunak, esker onak, kexak, salaketak edo erreklamazioak helarazteko erraztasunak ematea du helburutzat, era horretan, jasotzen duten segurtasun publikoaren sistema eta ematen zaizkien zerbitzuak hobetu ahal izateko, betiere zerbitzu horien kalitatea hobetzea eta Administrazioak segurtasunaren arloan bermatzen dizkien zerbitzu horiekiko konfiantza sortzea xedetzat hartuta.

Segurtasunaren, larrialdien eta babes zibilaren arloan eskumenak dituzten EAEko agintari guztiei, EAEko polizia-kidegoei, udaltzainei eta mugikortasuneko udal-agenteei eragiten die EKINBIDE berriaren jardura-esparruak, bai eta honako zerbitzu hauei ere: larrialdietakoei, suteei aurrea hartzeko eta suteak itzaltzekoei, salbamendukoei eta larrialdien eta babes zibilaren euskal sistema osatzen duten gainontzeko zerbitzuei.

Aipatutako zerbitzu eta agintariak emandako zerbitzuei buruzko esker onak, kexak edo iradokizunak jasotzeko postontzia izango da Ekinbide, bai postaz bai bitarteko telematikoa erabiliz.

Segurtasun Sailak eman edo koordinatutako zerbitzuak direnean, Ekinbidek beharrezko diren azterketak egingo ditu, eta ondorioak zein hobetzeko hartutako neurriak gehienez bi hilabeteko epean jakinaraziko dizkie interesdunei.

Baldin eta ekimena beste administrazio batzuek emandako zerbitzuei badagokie, horietara bideratuko du, erantzuna horiek eman dezaten, betiere ez badio Ekinbideri agindu horrelako kexen tratamendua. Horrelako kasuetan, Ekinbidek jardunari buruzko informazioa eskatu ahal izango dio eskumena duen administrazioari.

Aurkeztutako ekimen guztien jarraipena ere egingo du Ekinbidek, zerbitzuetan egokiak diren hobekuntzak proposatu ahal izateko. Halaber, bere jardueren urteko memoria ere egingo du, eta Eusko Legebiltzarrari eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluari igorriko die.

Gobernu Kontseiluaren gaurko bileran dekretua onartuta, Segurtasun Sailak EKINBIDE zerbitzuaren berri emateko konpromisoa hartu du eta, horrez gain, beharrezko diren inprimakiak eta tresnak ere emango ditu

herritarrek dekretuak barne hartzen dituen jarduera-esparru guztietan erraz erabili ahal izan dezaten.

## **INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA X. LEG.**

**Eusko Jaurlaritzak onartu du Artziniega parean lurzorua okupatzea A-2602 eta A-4624 errepideetarako.**

Dekretua, zeinaren bidez urgentziako deklaratzeko baita Arabako Foru Aldundiak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasunak okupatzea: A-2602 eta A-4624 errepideak Artziniegatik igarotzen egokitu eta urbanizatzeko eraikitze proiektua burutzeko beharrezko ondasun eta eskubideak.

### **LABURPENA**

Gaur, gobernu-kontseiluak oniritzia eman dio Arabako Foru Aldundiak beharrezko dituen ondasunen eta eskubideen premiazko okupazioari, nahitaezko desjabetze bidez, Artziniega parean A-2602 eta A-4624 errepideak egokitzeko eta urbanizatzeko eraikuntza-proiekturako.

Arabako Aldundiak, Artziniega parean A-2602 eta A-4624 errepideak egokitzeko eta urbanizatzeko eraikuntza-proiektua izeneko espedientea formalki egin eta onartu ondoren, adierazi zuen proiektua gauzatzeko lursail guztiak erabilgarri izatea beharrezkoa zuela.

**Eusko Jaurlaritzak oniritzia eman dio Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoari Nerbioi-Ollargan-Beteluri hoditeriaren euste-proiektuaren eraginpeko ondasunak okupatu ditzan.**

Dekretua, zeinaren bidez urgentziako deklaratzeko baita Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasunak okupatzea: Nerbioi-Ollargan-Beteluri (Ollargan) hoditeriari eusteko proiektua burutzeko beharrezko ondasun.

### **LABURPENA**

Gobernu-kontseiluak oniritzia eman dio Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoari Nerbioi-Ollargan-Beteluri hoditeriaren euste-proiektuaren eraginpeko ondasunak eta eskubideak premiaz okupatu ditzan, nahitaezko desjabetze bidez.



Bilbo Bizkaia Uren Partzuergoak Nerbioi-Ollargan-Beteluri hoditeriaren euste-proiektua izeneko espedientea formalki egin eta onartu ondoren, adierazi zuen beharrezkoa zuela proiektua gauzatzeko lursail guztiak erabilgarri izatea.